

0-1 URTEKO HAURREN GURASOENTZAT PROGRAMA



ETXADI taldeak
eginda (www.etxadi.org)
**“Jesús de Gangoiti
Barrera”**
Fundazioaren
babesean

0-3 HILABETE



MUGITZEKO GAITASUNAK



0-3 HILABETE

Mugitzeko gaitasunak I

- ❖ Flexioa da nagusi, zaila da gorputz-hedapena lortzea.
- ❖ Etzanda → fetu-jarrera.
- ❖ Zutik ipintzean, belaunak tolestu eta erori.
- ❖ Eserita, buruari ezin eutsi. Etzanda, burua altxatu jarrera aldatzeko, baina bigarren hilabetea arte ezin eutsi.
- ❖ Aurpegia: mimika gutxi, baina mina, poza, nekea... adierazten ditu.

Mugitzeko gaitasunak II



- ❖ Ikusmena: zirriborrotsua. Ikusmen-eremua zabaltzea. Ikusmen-koordinaziorik ez.
- ❖ Entzumena: soinuei erantzutea eta horiek kokatzeko ahalegina.
- ❖ Oratzea: oratze-erreflexutik borondatezko oratzera laugarren hilabetea.

ESTIMULAZIO ARIKETAK



0-3 HILABETE

Mugitzeko gaitasunak sustatzeko ariketak I

- ✓ Haurra eskuoihal batean bildu eta besarkatu, gure gorputza senti dezan.
- ✓ Besoetan hartu.
- ✓ Kulunkatu.
- ✓ Haurra etzan eta bi eskuekin hankak hartu eta mugimendu hauek egin:
 - ✓ Hankak zabaltu eta itxi.
 - ✓ Hankak luzatu eta tolestu.
 - ✓ Hankak gure eskuekin orraztu.

Mugitzeko gaitasunak sustatzeko ariketak II

- ✓ Modu berean, haurraren besoak kontuz hartu eta mugimendu hauek egin:
 - ✓ Besoak zabaldu eta itxi.
 - ✓ Tolestu eta luzatu.
 - ✓ Besoak orraztu.
- ✓ (Bainua hartu ondoren, lasai dagoenean). Hanketako muskulatura sustatu. Haurrak buruaren kontrol nahiko duenean, besapeetatik hartu eta hauek egin:
 - ✓ Oinez ibilarazi.
 - ✓ Eskailerak igoarazi.

Mugitzeko gaitasunak sustatzeko ariketak III

- ✓ Sehaskan dagoenean alboz ipini, bira egin dezan.
- ✓ Haurra sustatu burua eta enborra gero eta gehiago kontrola ditzan:
 - ✓ Gorantz etzanda dagoenean sehaskan edo kotxetxoan, objektu bat erakutsi, begiekin haren atzetik joan dadin.
 - ✓ Beherantz etzanda dagoenean, burua gure eskuekin kontuz altxatu eta segundo batzuetan horrela eduki. Ariketa 4-5 aldiz errepikatu.
 - ✓ Garondoan atximurka egin, kontuz-kontuz.

Mugitzeko gaitasunak sustatzeko ariketak IV

- ✓ Sehaskan besaurreen laguntzaz mantentzen denean, jarrera horretan jostailuak eskaini, horrela egon dadin.
- ✓ Moketan beherantz etzan eta jostailu deigarriak eskaini, apurka-apurka herrestan egin dezan eta jostailuak hartu.

GAITASUN KOGNITIBO- LINGUISTIKOAK



0-3 HILABETE

Gaitasun kognitibo-linguistikoak

- ❖ Arreta eta behaketa.
- ❖ Objektuak ezagutzeko modua: ahora eramatea.
- ❖ Hiruhilekoaren amaierarantz: etxeko pertsonak eta objektuak ezagutu.
- ❖ Soinuei erantzuteko eta soinuaren iturrirantz orientatzeko gaitasuna.
- ❖ Zarata latzak, oihuak, bokalizazioak eta kontsonante batzuk.
- ❖ Maitasunez hitz egiten zaionean barre egiten du.

ESTIMULAZIO ARIKETAK



0-3 HILABETE

Gaitasun kognitibo-linguistikoak sustatzeko ariketak I

- ✓ (Ohean sartzean). Entzun ditzan, haurrari soinu desberdinak egin, nahasi gabe eta haien artean tarteak eginda. Adibidez:
 - ✓ Txalo egin.
 - ✓ Txistu egin, ez oso ozen.
 - ✓ Ahoarekin edo objektuekin zaratak egin.
 - ✓ Txintxirrinak.
- ✓ Haurrari asko hitz egin, hurbileko elkarreragina dagoenean, adibidez: bularra edo biberioia ematen zaionean, bainua hartzen ari denean, etab.

Gaitasun kognitibo-linguistikoak sustatzeko ariketak II



- ✓ Haurrarekin arreta trebatzeko ariketak egin. Adibidez, horma baten aurrean ipini eta argia horma horretara zuzendu (bainuaren ostean, haurra lasai dagoenean).
- ✓ Jolastu jolastearren.

Gaitasun kognitibo-linguistikoak sustatzeko ariketak III

- ✓ Haurrarekin ispilu baten aurrean jolastu.
- ✓ Haurren liburuak erabili (haurrak xurgatzeko modukoak) arreta eta behaketa lantzeko. Marrazkiak seinالاتu eta objektuak, pertsonaiak, etab. izendatuko ditugu.



GAITASUN SOZIOEMOZIONALAK



0-3 HILABETE

Gaitasun sozioemozionalak



- ❖ Bereizketarik gabeko lehenengo irribarreak $\Rightarrow$ balio esanguratsu desberdinak.
- ❖ Irribarrea maitasunez hitz egiten zaionean.

ESTIMULAZIO ARIKETAK



0-3 HILABETE

Gaitasun sozioemozionalak sustatzeko ariketak I

- ✓ Haurraren aurrean soinuak egin (ahoarekin, objektuekin, txistu egin, txalo egin...) iturria bila dezan, eta aurkitzen duenean, irribarre egin eta besarkada bat eman (jatorduetan edo horien ostean, elkarreragina aprobetxatuz).
- ✓ Haurra jarrera desberdinetan kulunkatzea.
- ✓ Haurraren erritmoak errespetatu ariketak egiterakoan (loa, jatorduak, jolasa...).

Gaitasun sozioemozionalak sustatzeko ariketak II

- ✓ Irribarrearen garrantzia:
haurrari barre egitea berak
barre egiten duenean,
zerbait ahoskatzen
duenean, jaten ematen
diogunean, bainua hartzen
duenean... Azken finean,
edozein egoera ona da
haurrari barre egiteko eta
maite dugula erakusteko.



3-6 HILABETE



MUGITZEKO GAITASUNAK



3-6 HILABETE

Mugitzeko gaitasunak I


- ❖ Aurreko flexioa eta zurruntasuna desagertu, lasaitasun handiagoa.
- ❖ 3.-4. hilabetea: buruari eusten dio eserita dagoenean.
- ❖ Buruaren kontrol ona.
- ❖ Katuka mugimendu sinpleak 4. hilabetearen inguruan (aurrerantz eta atzerantz kulunkatzea).
- ❖ 5. hilabetea: ariketa baterako muskulu-tonua arautzeko gaitasuna.

Mugitzeko gaitasunak II



- ❖ 6. hilabetea: besapeetatik helduta zutik ipintzen da, baina bakarrik ez.
- ❖ Enborra nahiko artez, gerrialdea makurtuta.
- ❖ Buruaren kontrol ona.
- ❖ Emozioak aurpegiaren bidez gehiago eta hobeto adierazteko gaitasuna.

ESTIMULAZIO ARIKETAK



3-6 HILABETE

Mugitzeko gaitasunak sustatzeko ariketak I

- ✓ Aurreko hilabeteko ariketak egiten jarraitu.
- ✓ Lasaitze-ariketak (bainuaren aurretik edo ondoren).
 - ✓ Lasai-lasai eserita, haurra gure altzoaren gainean belauniko ipini, hitz egin, abestu, txistu egin...
 - ✓ Garondoan eta besoetan masajeak eman.
 - ✓ Bainua hartzen duenean, burua aurrerantz edo alboetarantz mugitu, mugimendu leunak eginda.
 - ✓ Aurpegia laztandu, kontuz putz egin, etab.

Mugitzeko gaitasunak sustatzeko ariketak II

- ✓ Hondartzako baloia: haurra buruz gora etzan eta baloia kontuz mugitu, haurrari besoetatik helduz, baloiarekin batera mugitu dadin (jolas-egoerak).
- ✓ Makurtu: haurra garondotik eta belaun paretik hartu eta apur batean kulunkatu (jolas-egoerak).



Mugitzeko gaitasunak sustatzeko ariketak III



- ✓ Kulunkatu (ohean sartu aurretik).
- ✓ Arnasketa-ariketak (ohean sartu aurretik edo bainua hartu ondoren).
- ✓ Gorantz etzanda: haurra eskuetatik hartu eta presio apur bat eginda altxatzera bultzatu (sehaskan dagoenean).
- ✓ Beherantz etzanda: jostailuak eman eta apurka-apurka urrunago ipini, altxatu eta eskuen gainean eusteko gai izan dadin (jolas-egoerak).

Mugitzeko gaitasunak sustatzeko ariketak IV

- ✓ Iraulketa: haurra beherantz dagoela bira egiten ahalegintzen denean, hori lortzen lagundu edo berak egin dezala eskatu. (sehaskan edo kotxetxoan dagoenean).
- ✓ Lasaitze-aulkian, ia etzanda dagoenean, jostailuak erakutsi horiek hartzen ahalegintzeko eta apurka-apurka altxatzeko.




Mugitzeko gaitasunak sustatzeko ariketak V



- ✓ Haurari enborretik heldu eta segundo batzuetan zutik izan; hiruhilekoaren amaieran bere pisuari eusteko gai izan behar du, berak bakarrik eutsi ez arren (jolas-egoerak).
- ✓ 6 hilabete inguru dituenean, haurra arrabolaren edo burkoaren aurrean belauniko ipini, eta beste aldean dagoen jostailu bat erakutsi. Hankak edo aldakak indar handirik egin gabe heldu, eta bira eginarazi, jostailuaren bila joateko (jolas-egoerak).

Mugitzeko gaitasunak sustatzeko ariketak VI

- ✓ Katuka: aurreko ariketa haurra belauniko eserita dagoela egiten badugu, katuka hasten lagunduko diogu; lau hankako jarrera menperatzean, katuka ibiltzen lagundu (jolas-egoerak).
- ✓ Txupete desberdinak eman ezpainak desberdin mugitu ditzan (jatorduen ostean).



Mugitzeko gaitasunak sustatzeko ariketak VII



- ✓ Musuak botatzen edo mihia atera eta sartzen jolastu (bainua hartzen duen bitartean).
- ✓ Adierazpenak aldatzen, begiak ixten... jolastu (bainuan, aurrez aurreko elkarreragina aprobetxatuz).

GAITASUN KOGNITIBO- LINGUISTIKOAK




3-6 HILABETE

Gaitasun kognitibo-linguistikoak

- ❖ Ingurua ikertzeko eta aztertzeko interes handia.
- ❖ Hautematen duena sailkatzen hasten da.
- ❖ Hiruhilekoaren amaiera: independentzia handiagoa eta, horri esker, esperientziak handitu ditzake.
- ❖ Hizkuntzako soinuak imitatzen eta interesa agertzen hasten da.
- ❖ 5. hilabetearen amaiera: zarata egitea, barre egitea, etab. interesatzen zaio.

ESTIMULAZIO ARIKETAK



Gaitasun kognitibo-linguistikoak sustatzeko ariketak I

- ✓ Ariketak isilik: haurraren aurrean eseri eta hitz egin, isildu eta berriz hitz egin (jatorduen ostean).
- ✓ Soinuak egin (bainuan dagoela).
- ✓ Keinu bidezko hizkera: harridura- eta haserre-aurpegiak ipintzen ditugu, ahoa eta begiak zabaltzen ditugu, bekainak igo, etab. (bainuan dagoela).



Gaitasun kognitibo-linguistikoak sustatzeko ariketak II



- ✓ Ezkutatzeko jolasak (jolas-egoerak).
- ✓ Jostailuak ezkutatu ausaz aurki ditzan (jolas-egoerak).
- ✓ Eskuekin erraz erabili ezin duen jostailu bat eskaini eta nola moldatzen den ikusi (sehaskan dagoela).
- ✓ Arreta-ariketak: ibiltzera atera eta bere arreta deitzen duten egoeren aurrean gelditu.

GAITASUN SOZIOEMOZIONALAK



Gaitasun sozioemozionalak

- ❖ Harreman onak inguruarekin eta pertsona ezezagunekin beldurra eragiten ez bazaio.
- ❖ Etxekoa ezagutzen du $\Rightarrow$ harridura-erreakzioak, baina estutasun handirik ez.
- ❖ Etxekoa ezagutzen du $\Rightarrow$ harridura-erreakzioak, baina estutasun handirik ez.

ESTIMULAZIO ARIKETAK



3-6 HILABETE

Gaitasun sozioemozionalak sustatzeko ariketak

- ✓ Kanean egotera ohitu eta kanean pertsonak aurkitzen dituenean haurrari hitz egin.
- ✓ Haur txikiengana hurbildu eta erakutsi.
- ✓ Haur txikiengana hurbildu eta erakutsi.



6-9 HILABETE



MUGITZEKO GAITASUNAK



6-9 HILABETE

Mugitzeko gaitasunak I

- ❖ Muskulu-tonu ona: bakarrik eser daiteke, bira osoa eman, eta katuka ibil daiteke.
- ❖ Gustukoen duen jarrera: ahoz behera.
- ❖ Katuka ibiltzen hasi.



Mugitzeko gaitasunak II



- ✓ Hiruhilekoaren amaieran: eserita egoten da oreka galdu gabe. Etxanda egotea baino gehiago gustatzen zaio.
- ✓ Zutik jartzen da alboan laguntzeko objektuak edo pertsonak dituenean.
- ✓ Objektuei hatz erakuslea eta lodia erabiliz heltzen die.

ESTIMULAZIO ARIKETAK



6-9 HILABETE

Mugitzeko gaitasunak sustatzeko ariketak I

- ✓ Lasaitze- eta arnasketa- ariketak (bainuan dagoela).
- ✓ Ukitu: haurraren gorputza atzamar-buruarekin haztatu (bainuan dagoela).
- ✓ Oratu eta masajeak eman (bainuan dagoela).
- ✓ Aurpegiko masajeak (bainuan dagoela).



Mugitzeko gaitasunak sustatzeko ariketak II



- ✓ Jostailuak kendu, eskaini, bata bestearekin jo, etab. (bainuan dagoela).
- ✓ Gure gainean eserita dagoela guri begira, noizean behin askatu egingo dugu eskuak lepotik kendu gabe, apurka-apurka berez eusten den arte (jatorduen ostean).
- ✓ Zutik ipini, lepoa gure bularraren aurka duela, eta apur batean zutik eduki (jolas-egoerak).

Mugitzeko gaitasunak sustatzeko ariketak III

- ✓ Haurra lau hanketan ipini, segundo batzuetan horrela utzi eta jostailu deigarriak erakutsi esku bat lurretik askatu dezan (jolas-egoerak).
- ✓ Oztoporik gabe katuka ibili: katuka bakarrik ibiltzen ikasten duenean, oztoporik gabeko lekuetan utzi, eginkizuna errazteko (jolas-egoerak).
Mozorroen jolasak: harritu egiten dira eta arretaz egoten dira (jolas-egoerak).



GAITASUN KOGNITIBO- LINGUISTIKOAK



Gaitasun kognitibo-linguistikoak I

- ❖ Katuka mugitzeko aukera: ingurua sakonago aztertzen du, eta luzaroan behatu eta jartzen du arreta.
- ❖ Jarduerak gora egiten du nabarmen: guztia interesatzen zaio.
- ❖ Lehenengo hitza esaten du.



Gaitasun kognitibo-linguistikoak II



- ❖ Elkarreraginak helduarekin hizkuntza benetako eta erabilgarria ezartzeko.
- ❖ Imitatzea, berari hitz egitea, abestea, musika, etab. asko gustatzen zaizkio.

ESTIMULAZIO ARIKETAK




6-9 HILABETE

Gaitasun kognitibo-linguistikoak sustatzeko ariketak I

- ✓ Haurrari imitatu (bainuan dagoela).
- ✓ Keinu bidezko hizkera: eskuekin “agur” esaten irakatsi ohean sartzen dugunean edo alde egiten dugunean.
- ✓ Gauzei izenak eman (jolas-egoeretan edo ibiltzera ateratzen garenean).



Gaitasun kognitibo-linguistikoak sustatzeko ariketak II



- ✓ Haurari hitz egin (jolas-egoerak, bainuan dagoela, jatorduetan, ohera sartu aurretik...).
- ✓ Aginduak egitera jolastu: 9. hilabetearen amaieran, eskaera batzuei jaramon egiteko gai izango da (jolas-egoerak).
- ✓ Erabakiak hartzen jolastu: bi jostailu eskaini, bat aukeratu dezan (jolas-egoerak).

Gaitasun kognitibo-linguistikoak sustatzeko ariketak III

- ✓ Jostailuen kokapena aldatu (jolas-egoerak).
- ✓ Behaketa-ariketak: jostailu deigarriak eta koloreetako ura duten potoak eskaini, bere liburuak erakutsi eta xehetasun txikien inguruan arreta deitu, etab. (iratzartzean).
- ✓ Hitz eta keinu bidezko ariketak: abestiak keinuekin batera abestu, eskuarekin agur esan (bainuan dagoela).



Gaitasun kognitibo-linguistikoak sustatzeko ariketak IV




- ✓ Oroimen-ariketak: jostailu bat 5 edo 6 egunetan ezkutatu eta berriro erakutsi, barre eginez ezagutzen duen ikusteko (jolas-egoerak).
- ✓ Egokitze-jolasak, adibidez: txupete gogor bat eman, eta tarte baten ostean, txupete biguna eman; hasieran indar berberarekin egingo dio hozka, baina gero moldatu egingo da (jatorduetan).

GAITASUN SOZIOEMOZIONALAK



Gaitasun sozioemozionalak

- ❖ Helduaren laguntza behar du heldu arrotzekin harremanak izateko, baina ez bere adineko haur arrotzekin harremanak izateko.
- ❖ Une ona da haurrarekin modu trinkoagoan lan egiteko.



ESTIMULAZIO ARIKETAK



6-9 HILABETE

Gaitasun sozioemozionalak sustatzeko ariketak I



- ✓ Jolasak kalean gaudela: usoei, jolasten ari diren haurrei... begiratzeko esan.
- ✓ Atxikimendu-jolasak: kili-kiliak gorputz-ukipenarekin, irribarreak gorputz-ukipenik gabe (bainuan dagoela).

Gaitasun sozioemozionalak sustatzeko ariketak II

- ✓ **Ohiturak:**
- ✓ Esfinterren kontrola (haurra berehala aldatu oso bustita dagoenean).
- ✓ Jantzi (janztean, mugimendua ahaleginik egin gabe egiten lagundu eta, apurka-apurka, besoa sartuko du mahuka sentitzen duenean).
- ✓ Garbitu (ura ukitzeko ariketa).



9-12 HILABETE



MUGITZEKO GAITASUNAK



9-12 HILABETE

Mugitzeko gaitasunak I

- ❖ Jarrera tentea lortzeko eta jarrera horretan ariketa batzuk egiteko joera ona.
- ❖ Jarrera tentea lortzeko eta jarrera horretan ariketa batzuk egiteko jarrera ona.
- ❖ Orekari ondo eusten dio eta jolastuz edo inguruari begiratzuz gozatzen du.



Mugitzeko gaitasunak II



- ❖ Katuka ibili:
hiruhileko honetan
nagusi den jarrera.
- ❖ Bi eskuekin eutsiz eta
pausoak alboz emanaz
hasiko da ibiltzen.
- ❖ Aurpegiko
adierazpenak ondo
menperatzen ditu.

Mugitzeko gaitasunak III

- ❖ Burua oreka galdu gabe kontrolatzen du, baina egonkortasuna falta zaio.
- ❖ Gorputz-eskema nahiko garatuta



ESTIMULAZIO ARIKETAK



Mugitzeko gaitasunak sustatzeko ariketak I

- ✓ Etzanda: jostailuak eskaini herrestan joateko, eta oratzeko zerbait aurkitzen duenean (adib. mahaia), apur bat altxatu horri ondo eusteko eta zutik jar dadin (jolas-egoerak).
- ✓ Etzanda: jostailuak eskaini herrestan joateko, eta oratzeko zerbait aurkitzen duenean (adib. mahaia), apur bat altxatu horri ondo eusteko eta zutik jarri dadin. (Jolas-egoerak).



Mugitzeko gaitasun horiek sustatzeko ariketak II



- ✓ Katuka ibili: gelan oztopoak ipini horiek gainditzeko edo zutik ipintzen ahalegintzeko (jolas-egoerak).
- ✓ Zutik jolasten duenean eta bi eskuekin oheari eusten dionean, jostailu bat eskaini har dezan eta eskua aska dezan, lurrera erori arren (jolas-egoerak).

Mugitzeko gaitasunak sustatzeko ariketak III

- ✓ Aurreko etapako ariketak jarrera sendotzeko.
- ✓ Behartu gabe, eskuetatik heldu eta ibiltzen lagundu (jolas-egoerak).



Mugitzeko gaitasunak sustatzeko ariketak IV



- ✓ Aulki baten kontra jarri eta, ondo oratuta dagoenean, aulkia apurka-apurka mugitu pauso batzuk eman ditzan (jolas-egoerak).
- ✓ Etxeko objektuak: estalkia ipini eta kendu, komuneko kateari eragin, argiak piztu eta itzali, eta lapikoei edo zaborrontziari estalkia kendu (jolas-egoerak).

GAITASUN KOGNITIBO- LINGUISTIKOAK



9-12 HILABETE

Gaitasun kognitibo-linguistikoak I

- ❖ Esplorazio-eremu berriak, mugitzeko aukerei esker.
- ❖ Oroimen ona.
- ❖ Interesatzen zaiona arretaz behatzeko eta jaramon egiteko gaitasuna, denbora nahiko erabiliz.
- ❖ Ikasteko joera ona.



Gaitasun kognitibo-linguistikoak II



- ❖ Ulermen nahiko ona.
- ❖ 1. urtearen amaieran:
1-3 hitz ahoskatzen
ditu.

ESTIMULAZIO ARIKETAK



Gaitasun kognitibo-linguistikoak sustatzeko ariketak I

- ✓ Isilik jolastu: konbinatu ahotsa eta ahotsik eza (jolas-egoerak).
- ✓ Txartelekin jolastu: txartelak erakutsi, txartelak ukitzen utzi eta izena esan (jolas-egoerak).
- ✓ Jolastu eta hitz egin (egoera guztietan).




Gaitasun kognitibo-linguistikoak sustatzeko ariketak II



- ✓ Hizkuntza eta arreta: kontuak kontatzera jolastu (jolas-egoerak, ohean sartu aurretik edo bainuan dagoela).
- ✓ Jolasak mihi puntarekin (jatorduetan).
- ✓ Umeak egiten dituen soinuak imitatu (bainuan dagoela, jolas-egoerak).
- ✓ Behaketa-ariketak: beste arlo batzuetako ariketak, esaterako hizkuntza (jolas-egoerak).

Gaitasun kognitibo-linguistikoak sustatzeko ariketak III

- ✓ Hautaketa-jolasak: bi jostailu, bi margo, bi lamina eskaini, bat aukera dezan (jolas-egoerak).
- ✓ Ikerketa-jolasak: oinetakoen kaxa bat eskaini zabal dezan, jostailua irekitzeko erraza den paketean sartu, eskuan eskumuturrekoa ipini kentzen ahalegin dadin, margoak eta kartulina eskaini margotzen ahalegin dadin (jolas-egoerak).



Gaitasun kognitibo-linguistikoak sustatzeko ariketak IV



- ✓ Paper-zerrendak bota: kartulina batean koloreetako zerrendak itsatsi, askatzen ahalegindu dadin (jolas-egoerak).
- ✓ Oroimen-ariketak: jolas bat bi egunetan alde batera utzi eta berriz errepikatu, haurra gogoratzen den ikusteko; mugimendu bat irakatsi, egun batzuetan ez egin eta gero berriro egin (jolas-egoerak).

GAITASUN SOZIOEMOZIONALAK



Gaitasun sozioemozionalak

- ❖ Berak egiten duena helduen gustukoa den edo ez ulertzen duela dirudi.
- ❖ Nahi duena lortzeko taktika txikiak.
- ❖ Jendearekin egotea eta haiekin jolastea gustatzen zaio.



ESTIMULAZIO ARIKETAK



Gaitasun sozioemozionalak sustatzeko ariketak I

- ✓ 5 edo 10 minutuz bakarrik jolasteko gai izan behar du.
- ✓ Ezkututzen jolastea (jolas-egoerak).
- ✓ Imitazio-jolasak (jolas-egoerak, bainuan dagoela edo jatorduetan).



Gaitasun sozioemozionalak sustatzeko ariketak II



✓ OHITURAK:

- ✓ Esfinterrak kontrolatzea: pixontzian egunean behin behintzat ipini.
- ✓ Jantzi: lagundu egin behar du, haserre ez badago.
- ✓ Garbitu: azpil bat urez bete eta eskuak garbitu, eta ondoren, jolasten utzi; eskuoihal batekin sikatu, eta berari utzi gu imitatzen ahalegindu dadin.

BIBLIOGRAFIA

- Vidal, M. eta Díaz, J. (1990). *Atención Temprana. Guía práctica para la estimulación del niño de 0 a 3 años*. Madril: CEPE.
- Arranz, E. (2004). *Familia y desarrollo psicológico*. Madril: Pearson.
- <http://www.miembrazo.com>
- http://www.carm.es/ctra/cendoc/publicaciones/2003_Calidadestimular.PDF (0 eta 3 urte bitarteko neska-mutilak suspertzeko kalitatezko irizpideak dituen gida).



AMAIERA

